

## Gelako giroa kudeatzea, irakas-ikas prozesua hobetzeko (BH)



7 saio



30 ordu



6 ikasgelan



### KONPROMISOAK COMPROMISOS

Koordinatzailearen konpromisoak:

- Partaideen beharrak jaso eta Berritzeguneari helarazi.
- Taldean adostutako erabakiak jaso azken dokumentua eratzeko.
- Irakasle taldeak antolatu eta dinamizatu.

Partaideen konpromisoak:

- Proposamenak diseinatu, egokitu eta gelan aplikatu.
- Irakasleen ebaluazioa eta behaketa egin.
- Praktikaren ebidentzia jaso: bideo, ikasleen lanak, eta abar.
- Taldeetan partaide aktibo izan.

Aholkularien konpromisoak:

- Ikastetxeko koordinatzaileei formazioa bideratzeko proposamena aurkeztu, eragile guztien artean aztertu, egokitu eta adosteko.
- Saioak dinamizatzea.
- Web orria kudeatzea.



### HELBURUAK OBJETIVOS

- Disrupzioaz ulertzen duguna adostu.
- Gelan, jarrera disruptiboari aurre egiteko jarraibide-dekalogo adostua sortu.
- Jarrera disruptiboari erantzuteko estrategiak ezagutu.
- Era kooperatiboan lan egin.
- Prestakuntzaren edukia jaso eta hedatu.
- Ikasleekin gelan landuko dena aldeztu aurretik esperimendatu.



### EBALUAZIO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE EVALUACIÓN

- Disrupzio-kontzeptua adostu da irakasleen artean.
- Adostutako disrupzio-kontzeptua dokumentu batean jaso da.
- Jarrera disruptiboari aurre egiteko jarraibide-dekalogo adostu da.
- Adostutako jarraibide-dekalogo dokumentu batean jaso da.
- Jarrera disruptiboari erantzuteko estrategiak ezagutu eta aztertu dira.
- Ikaskuntza kooperatiboaren dinamikak eta egiturak erabili dira lan egiteko.
- Prestakuntzaren edukia web orri batean jaso da.
- Prestakuntzaren edukia klaustro-bilera batean hedatu da.
- Prestakuntzaren edukia praktika onen saio batean jakinarazi zaio ikas-komunitateari.
- Ikasleekin gelan landuko dena aldeztu aurretik esperimendatu da.
- Prestakuntza saioetan ezagututako estrategiak gelan erabili dira.



### EDUKIAK CONTENIDOS

- Disrupzioaren definizio adostua.
- Jarrera disruptibo eta ez-disruptiboak ikaslerian eta irakaslerian.
- Irakasle-lanaren gaineko hausnarketa.
- Gela kontrolpean izateko estrategiak.
- Irakasleek ikasleriaren jarrera ez egokien aurrean izaten dituzten erantzunen gaineko hausnarketa.
- Jarrera disruptibo baten aurrean erabiltzeko jarraibideak.
- Jarrera disruptiboari erantzun alternatiboak.
- Jarrera disruptiboari aurre egiteko dekalogoak.